

Abendua: KONTSUMOARI buruz hausnartzeko hilabete egokia

*Pentsa dezakegu kontsumoaren inguruan dugun jarduera gizartean txertatu den kezka bat dela, izan ere, oro har, onartzen ari gara gure funtzionamendu globala gure bizimoduari eragiten ari zaiola, alderdi guztietan: **ezin dugu horrela jarraitu, planetak ezin du jasan eta “haserretzen” ari da.***

Planteamendu global horretatik abiatuta, portaera pertsonaleko errezetak sortzen dira: birziklapena, kontsumo arduratsua, hurbiltasunekoa, beharrezkoa dena, ez xahutzea, etab.

*Baina Jose Maria jaunak, kontsumoari buruzko gogoetetan, gaur egun kontuan hartzen ez den alderdi bat sartzen du jarduteko moduan: **elkartasuna.***

Behar dugun iraultzak lanean oinarritu behar du, ez mitoetan; batasuna lortu behar dugu, egian bermatuz eta sekula ere ez gezurrean, hipokrisian eta hutsegitean. Badira korronte batzuk, «kontsumitzen duen kontsumo gizartea» helburu, ongizate material hutsaren bidez drogatzen ahal gaituztenak, non gizakia gauza gisa kotizatzen den eta ez pertsona gisa; korronte horiei erantzuten die, gure artean, mugimendu kooperatiboak, pertsona gisa parte hartu eta jardutera deituz eta lagunduz. Eta pertsonak garen aldetik, gure ekimena, erantzukizuna eta gure sormena erabiltzen ditugu sorkuntzarako eta lanerako lehenengo zelula edo organismotik abiatuz, hau da, enpresatik abiatuz. Hala, ekonomia eraldatzeko jarrera berri bat abiarazi ahal izango dugu eta antolamendu sozio-ekonomiko berri bat sortu, gizakiaren duintasunarekin eta giza komunitateen eskakizunekin koherentea izango dena. p381

Bi esku daukagu eta erritmo berera egokituta joan behar duten bi funtzio hauen ardura onartu behar dugu: batetik, indarberritzeko eta ahaleginak konpentsatzeko behar den kontsumoarena, eta, bestetik, inbertsioarena, etorkizunera begira jarri eta belaunaldien artean elkartasuna sustatzeko ezinbestekoa dena. Eta inbertitzaile funtzioa egin ahal izateko, batasuna behar dugu, orain artean itxurazko iraupena ziurtatzeko behar izan duguna, edo are gehiago. p500

Lan egitea oso meritu handikoa izanda ere, lan hori gero gehiegikeria edo ke bihurtzen bada, ezin esan daiteke hori egin duenak lana merezi bezala tratatu duenik. p273

Guri gogoeta hauek iradokitzen dizkigu:

Behar dena kontsumitzea.

Partekatzea min ematen digun arte.

Gure baliabideak gizartearen onurarako erabiltzea: herritar gisa ditugun betebeharrak betetzea.

Etorkizuneko belaunaldiekin solidarioak izatea eta horren arabera jokatzeta.

Beste batzuen beharrak aitortzeko prest eta sentsibilizatuta gauden data batzuen aurrean gaude, eta, aldi berean, kontsumismo irrazional bat praktikatzen dugu, akrituta eta ia beti ase gabe uzten gaituena.

***Promozioko edo kontsumismo ergeleko zer lasterketatan sartuta gaude?
p28***